

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA

#### **Hasierako onespena ematea ur hornidura eta saneamendu eta arazketa ordenantzei**

Urbide Arabako Ur Partzuergoaren batzar orokorrak, 2019ko apirilaren 9ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea ur hornidura zerbitzuaren ordenantza teknikoari eta saneamendu eta arazketa zerbitzuaren ordenantza teknikoari.

Haien testuak bulego teknikoetan (Camino del Vado, 1. Ribabellosa, Araba) daude aztergai. Era berean, partzuergoaren iragarki taulan egongo dira ikusgai eta, haien kopiarik nahi izanez gero, [[consorciodealavaurbide@gmail.com](mailto:consorciodealavaurbide@gmail.com)] posta elektronikoko helbidean lortu ahal izango dira. Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, espedientea hogeita hamar egunez jarriko da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta, hala badagokio, egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Erabaki honen aurkako erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onetsitaz joko dira ordenantza horiek.

Ribabellosa, 2019ko apirilaren 9a

*Presidentea*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*